

1- Diagnostikoa konpartitzen al duzu(e)? Hau da, zuen ustez, nolakoa da ipar euskal herrian euskararen erabilera orokorra?

Dударик gabe, erabilera beheiti doa, bai kantitatean, bai kalitatean.

Baina dena ez da negatiboa: lehenago indartsu zegoen lekuetan hegemonia galdua du bai, baina lehenago “inertzia” bezala erabiltzen zelarik, orain “erabakiz” erabiltzen da. Jende anitzek euskaraz bizitzeko hautua egina du, ahal duen neurrian bederen. Horrez gain, lehenago ikusten eta entzuten ez zen eremu batzuetan gehiago ikusten eta entzuten da (Baionan berean, adibidez).

2- Euskaltzaindiak hartzen dituen erabakiak behar bezala aplikatzen direla iduritzen zaizu(e)?

Orohar, iruditzen zait ezetz. Eguneroko solasaldietan arauak ez aplikatzea ez zait larri iduri baina, gehiegitan, euskararen munduko egitura profesional batzuetan ez dira aplikatzen, eta horrek kezkarria iruditzen zait.

Iruditzen zait ezjakintasun handia badagoela eta, askotan, ezaxolakeria ere bai. Euskararen mundutik, argitaratu afixa, egitarau edo soinu-deietan, deklinabide arazoak (mugagabea, zenbakiak), dataren errateko manera okerrak agertzen dira. Aipatu gabe tenorea idazteko manera (badakit arau hori bereziki konplikatu dela). Horiek bezain gauza arruntetan eta errepikakorretan arauak ez errespetatzea segurtasun eskasia handia dakar.

Ematen du kontu horiek ez direla finkatuak, ez direla arautuak. Frantsesaren kasuan, horrelako gauzak ez dira gertatzen, ez dira onartzen eta, gertatzen direlarik, akats gisa ikusiak dira. Frantsesaren kasuan, dudarik ez dago. Euskararen kasuan, aldiz, iduri du zernahi dudan eman daitekeela. Akademiaren erabakiak ere bai. Iduri du zilegi dela arauak ez errespetatzea eta arau horiei begiratu ere ez egitea. (*Jadanik erran dudan bezala, hori, karrikako erabileraren kasuan, normala iduri zait, baina maila profesionalean ez, ez zait onargarria iduri.*)

3- Hobetzekoa bada, zure/zuen ustez, nola?

Bizi guzian ikasten segitzen dugula onartu behar da. Beti badela ikasteko zerbaite. Ikasteko gogoia izan behar da, formakuntza jarraikiaren bitartez ere bai, ahal bada. Arauak gogoz ikastea oso zaila da, baina gutxienez arau horiek non dauden ikastea, Euskaltzaindiaren webgunea erabiltzea, Euskaltzaindiaren Hiztegia, Euskara Batuaren Eskuliburua, Euskara Eskuz Esku, Elhuyar, Euskalterm, Euskal Wikipedia... Askotan, entzuten dut jendeak Nola Erran baizik ez duela ezagutzen, eta besterik ez. Profesionalek eredu eman behar dute. Horretarako funtsa izan behar dute. Borontate kontu bat ere bada, baina errepikatzen dut: “Nolaz onartzen da, maila profesionalean, frantsesaren kasuan onartuko ez litzatekeen zorrozgabetasun-eza?”. Euskara ez da beste hizkuntzen mailakoa, ala? Ez da modernoa?

Agian zuzentzaile postuak sortu beharko lirarteke hainbat egituratan. Badakit ekonomikoki ez dela errexa. Badakit bakoitzak onargarritzat daukan lizentziaren eta onargarria ez den akatsaren arteko muga lausoa eta mugikorra dela. Zuzenketaren eta

berridazketaren arteko muga, berdin. Eta, eni hasteko, ez zait batere gustatzen besteen lana zuzentzea... Baina zerbait egin behar da.

4- Nola egiten duzu(e) zuen egituretan erabakien aplikapen zuzena egiten dela segurtatzeko?

Lehenik, erran-zahar bat beti gogoan atxikitzen dut: *Usteak erdi ustel*.

Beraz, ez banago zerbaitez segur, zerbait *uste* baizik ez badut, begiratzera noa.

Erreferentzietara jotzen dut. Maila profesionalean lan egiten dudalarik, erran-molde bat edo hitz bat ez badut dokumentaturik aurkitzen, dokumentaturik dagoen beste bat erabiltzen dut. Idatziz behintzat.

Gero, lanetik kanpo, hainbat egituratan ere ari naiz eta hor, gertatzen zait besteen lanen zuzentzaile-eginkizuna hartzea. Egitura militante batzuetako kideek eskatzen ere didate testu edo erranaldi batzuk zuzentzea.

Lehenago erran dudan bezala, ez zait gustatzen besteen lana zuzentzea. Delikatua ere da: jendea ez da gaitziarazi behar, ez zaio euskaraz idazteko gogoan kendu behar...

Ohartu naiz agertzen diren akats larriak ez direla hamar mila. Azkenean, beti bertsuak dira.

Bistan dena, ez naiz oro-jakilea eta gauza batzuk ez ditu ikusten, baina segur naiz hogei bat kontu zuzentzen balira, begi-bistakoak diren akats gehien-gehienak konponduko lirakeela, eta ez direla beti arazo konplikatua.

Erreferentziak eta zuzentzeko tresnak ezagutu behar, zorrotasun eta diziplina hein bat onartu behar, eta zuzentzeko prozesuak antolatu behar.

Ez da erratea bezain sinplea...